# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia — Iruña, 2026ko apirilaren 29a — 43. ZK.

### A U R K I B I D E A

F SAILA:

**Galderak:**

—11-26/PES-00030. Galdera, Osasunbidean naziokoak ez diren pertsonei egindako esku-hartze medikoei edo ebakuntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).

—11-26/PES-00045. Galdera, Legasako hirigunean ibilgailuen trafikoak sortzen duen arazoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).

—11-26/PES-00046. Galdera, 1055/2022 Errege-dekretuaren 34.1.b) artikulua dela-eta ekoizlearen erantzukizun zabalduaren sistemek finantzatu beharreko kostuen interpretazioaren gaineko ohar teknikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).

—11-26/PES-00047. Galdera, Nafarroako Gobernuaren entitate laguntzaile gisa aitorturik dauden animalien babeserako eta defentsarako elkarteek igorritako gutun irekiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).

—11-26/PES-00048. Galdera, Nafarroako landa-guneetako autobus-geltokiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).

—11-26/PES-00049. Galdera, 2026ko tributu-neurriei buruzko legeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).

—11-26/PES-00051. Galdera, NORDEX taldeak jaso dituen laguntzei, dirulaguntzei eta kenkari fiskalei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).

—11-26/PES-00052. Galdera, 2025eko martxoan iragarri zen epe luzeko inbertsio industrialaren funtsari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).

—11-26/PES-00053. Galdera, Sendaviva parkean 2025ean izandako bisitariei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).

—11-26/PES-00054. Galdera, beharturik eta baimenik gabe esterilizatutako desgaituei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).

—11-26/PES-00055. Galdera, Nafarroako Gobernuaren jarduketei buruzkoa, fiskalizaziorik egin ez izanari buruzko txostena ikusita. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).

—11-26/PES-00056. Galdera, despopulazioari buruzko lege berrian despopulazio-arriskuan dauden eremuetako herrietan nahi gabeko bakardadearen kontra borrokatze aldera jasotzen diren neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
—11-26/PES-00057. Galdera, hiriarteko zerbitzuak abiarazi izanari eta taxiek beren lurralde-eremutik kanpo egindako zerbitzuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).
—11-26/PES-00058. Galdera, 2025-2028ko aldirako Enplegu Planaren baitako berdintasun-planak betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
—11-26/PES-00059. Galdera, Parquenasaren kontratuak direla-eta esku-hartu ez izanari buruzko espedientea ez argitaratzeko arrazoiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
—11-26/PES-00060. Galdera, Nafarroan 1/2024 Legea garatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (35. or.).
—11-26/PES-00061. Galdera, txerri-izurri afrikarra dela-eta hartutako neurriak areagotzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (37. or.).
—11-26/PES-00062. Galdera, 2024ko kirol-urtekariari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (39. or.).
—11-26/PES-00063. Galdera, Nafarroan dauden eta Estatuaren jabetzakoak diren etxebizitzei buruz Zoruaren Enpresa Entitate Publikoak emandako txostenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (40. or.).
—11-26/PES-00064. Galdera, Leitza Udalerriko Nafarroako Etxebizitza Errentamenduko Kontratuen Erregistroko datuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (41. or.).

**F saila:**
**GALDERAK**

## 11-26/PES-00030. Galdera, Osasunbidean naziokoak ez diren pertsonei egindako esku-hartze medikoei edo ebakuntzei buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jaunak Osasunbidean naziokoak ez diren pertsonei egindako esku-hartze medikoei edo ebakuntzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko otsailaren 13ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Osasun Zerbitzuan nazionalak ez diren pertsonei ebakuntza mediko edo kirurgikoak egiteari buruz (11- 26/PES-00030). Hona Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion erantzuna:

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ez dauka jasota horrelako egoerarik gertatu den, eta gaur-gaurkoz ez dago mekanismo zehatzik osasun-laguntzari eragiten dioten egoera mota horietarako.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2026ko martxoaren 13an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

## 11-26/PES-00045. Galdera, Legasako hirigunean ibilgailuen trafikoak sortzen duen arazoari buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mikel Zabaleta Aramendia jaunak Legasako hirigunean ibilgailuen trafikoak sortzen duen arazoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko otsailaren 20ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak 11-26/PES-00045 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Legasako trafikoaren egoerari buruz. Bada, Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak hau jakinarazten du:

1. Nafarroako Gobernuak ezagutzen al du Gaztelu auzora sartzeko Legasako herrigunea gurutzatzen duten ibilgailuen trafikoak zer arazo dakarren?

Herri-lanen eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiak ez du Legasako herriguneko ibilgailuen trafikoaren ondoriozko arazoaren berririk; izan ere, bide hori Nafarroako errepide-sarearen katalogo ofizialetik kanpo dago.

Nolanahi ere, Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiak udalerri horretako Udalaren eskaera bat jaso zuen, Toki Inbertsioen Planeko (PIL) sarerik gabeko zoladuraren atalean sartzeko. Eskaera ez zen onartu, bide berria delako, eta, beraz, ez delako bide publikoa, Toki Inbertsioen Plana arautzen duen martxoaren 22ko 8/2022 Foru Legearen 14.1.C artikuluaren arabera.

2. Lurralde Kohesiorako Departamentuak izan al du harremanik edo bilerarik Bertizaranako Udalarekin egoera hori aztertzeko?

Ez da deskribatutako gai horri buruzko bilerarik izan Bertizaranako Udalarekin.

3. Hala baldin bada, zer irtenbide edo jarduketa planteatu, aztertu edo aurreikusi da Legasako herrigunean trafikoa murrizteko eta bertako biztanleen segurtasuna bermatzeko?

Legasatik Gaztelu auzorako pista Legasako kontzejuaren titulartasunekoa da, eta, beraz, hiritarteetan toki-entitateak izango dira trafikoa kudeatzearen arduradunak.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2026ko martxoaren 10ean

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

---

## 11-26/PES-00046. Galdera, 1055/2022 Errege-dekretuaren 34.1.b) artikulua dela-eta ekoizlearen eran tzukizun zabalduaren sistemek finantzatu beharreko kostuen interpretazioaren gaineko ohar teknikoari buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, 1055/2022 Errege-dekretuaren 34.1.b) artikulua dela-eta ekoizlearen eran tzukizun zabalduaren sistemek finantzatu beharreko kostuen interpretazioaren gaineko ohar teknikoari buruzkoa, 2026ko otsailaren 20ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako 11-26/PES-00046 idatzizko galderari buruz, hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak galdera horiei emandako erantzuna:

1. Egin du Departamentuak kudeaketarik Nafarroan baimendutako Ekoizlearen Erantzukizun Hedatuko Sistema Kolektiboekin (EEHSK)?

Errefusaren zatikian ontziak izateari lotutako kostuaren finantzaketa Nafarroako Gobernuaren eta ontzien EEHSKen arteko esparru hitzarmenen negoziazio fasean landu zen, toki-entitateekin koordinatuta.

Gai hori Trantsizio Ekologirako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren (TEEDM) Ontzien Lantaldearen bileretan ere aztertu da, zeinetan autonomia-erkidegoek parte hartu baitute. Gainera, legeria betetzen dela ikuskatzeko TEEDMko lantaldearen bileretan ere landu da, zeinetan autonomia-erkidegoetako zuzendari nagusiek parte hartu baitzuten; zehazki, modu espezifikoan, Murtzian 2025eko azaroaren 25ean egindako bileran.

Aldi berean, Foru Komunitatean, Nafarroako Foru Komunitatearen eta Ecoembalajes España SAren arteko Esparru Hitzarmenaren Jarraipen Batzordearen lehen bileran, 2025eko azaroaren 11n, jakinarazi zen hitzarmenak kostu espezifikoen azterketak egiteko aukera ematen duela, hori justifikatzen duten inguruabarrak badaude. Horri buruz, entitateek adierazi dute gaikako bilketaren kostuen azterketa egin zela hitzarmena negoziatzeko prozesuan. Gainera, kontuan hartuta Ontzien Europako Erregelamendu berria 2026ko abuztutik aurrera aplikatuko dela, eta ontzien inguruko estatu mailako

errege dekretu berria egiteko prozesua abian dela, uste da esparru berri horrek zehaztuko duela zer urrats egin.

2026ko urtarrilaren 19an, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioko Ingurumen Kalitate eta Ebaluazioko Zuzendaritza Nagusiak Hondakinen arloko Koordinazio Batzordearen ohar teknikoa helarazi zuen, 1055/2022 Errege Dekretuaren 34.1.b) artikuluari buruzkoa, besteak beste honako alderdi hauek ezartzen dituena:

• EEHSKek errefusaren zatikian dauden ontzien garraioaren kostu osoa finantzatu behar dute, benetan bildutako ontzien arabera, eta ez soilik berreskuratutakoen arabera.

• EEHSKek ontziei egotz dakizkiekeen instalazioko funtzionamendu-kostuen zati proportzionala hartu behar dute beren gain.

• TEOekiko eraginkortasunik ezak ez die EEHSKei eragin behar.

Gai hori berriro landuko da Ecoembesekin eta Ecovidriorekin sinatutako hitzarmenen jarraipen-batzordeetan, eta, aurrerapenak lortzen diren heinean, gainerako toki-entitateei helaraziko zaizkie.

2. Zer erabaki hartuko dira EEHSKei kostu osoa ordain dezatela eskatzeko?

Ohar teknikoak ekoizlearen betebeharrei aurre egiteko haren finantza-ekarpenaren irismenari buruz argia ematen badu ere, uste dugu gaur egun ez dela zuzenean aplikatu behar sinatutako hitzarmenetan. Izan ere, ohar horren inplikazio juridikoez luze eta zabal eztabaidatzen ari da, eta ez da adostasunik lortu oraindik.

Hala ere, ohar hori bereziki esanguratsutzat jotzen da, ministerioak ontzien errege dekretu berria egin behar duen testuinguru honetan, irizpide horiek testu horretan osorik jaso ahal izanen baitira, eta, beraz, horien erabateko estaldura juridikoa bermatu ahal izanen baita.

Nafarroan, gai horri buruzko aurrerapenen jarraipena egiten jarraitzen dugu, baina gogorarazi behar dugu, halaber, ez dela foru mailako hiri hondakinen kudeaketaren alderdi kritikoa; izan ere, dagoeneko gaikako bilketaren guztizko hedapena lortu duen komunitatea da, eta ontzien bilketaren emaitzarik onenak ditu, estatu mailan, bai edukiontzi horian bai urdinean. Horrez gain, beirazko ontzien presentzia urria du beste zatiki batzuetan. Beraz, ohar horretan jasotako irizpideen aplikazioak eragin mugatua izanen luke Nafarroan, beste autonomia-erkidego batzuetan izanen lukeenarekin alderatuta, gaikako bilketari buruzko datu askoz ere txikiagoak baitituzte haiek, eta gehienek ez baitute esparru-hitzarmenik sinatuta.

Hain zuzen ere, Nafarroako egoera bereizgarri horrek lagundu zuen mankomunitateetan eta toki-entitateetan gehiengoak lortzen, Nafarroako Foru Komunitatearen eta EEHSKen arteko hitzarmenen sinadurari babesa emateko.

Eta, nolanahi ere, gogorarazi behar da Ecoembesekin sinatutako hitzarmenak honako hau jasotzen duela 5.9 artikuluan: “Baldin eta Ecoembesek beste autonomia-erkidego batzuekin hitzarmen honen xede bererako hitzarmenak sinatzen baditu, eta itundutako baldintzak onuragarriagoak edo mesedegarriagoak badira autonomia-erkidego horientzat edo atxikitako toki-entitateentzat, hitzarmen honetan itundutakoekin alderatuta, horren berri eman beharko dio Nafarroako Komunitateari, eta berrikuspen mekanismoak abian jarriko dira, hitzarmena aldatzeko 21. artikuluan jasotakoak”.

Azkenik, komeni da azpimarratzea, hondakinen prebentzioaren arloan aurrera egiten jarraitzeaz gain, Nafarroako Foru Komunitatearen beste helburu nagusia, mankomunitateekin eta toki-entitateekin partekatua, kalitate handiko gaikako bilketa sustatzen jarraitzea dela, jatorrian behar bezala bereiztean oinarrituta, eta horrek esan nahi duela errefusaren zatikian dauden hondakin desegokiak ahalik eta gehien murriztu behar direla, hala nola ontziak edo materia organikoa.

Horregatik, hitzarmenaren negoziazioan lehentasunezkoa izan da lurralde bakoitzaren errealitatera egokitutako eta ondo hornitutako neurri eraginkorrak abian jartzea bermatuko duen finantzaketa bat lortzea; neurri horiek prebentzioa eta gaikako bilketa hobetzen jarraitzea eta instalazio gero eta espezializatuagoetan efizientzia handieneko tratamendua egitea dute helburu.

Helburu horiek berak ditu hitzarmenen jarraipen eta ezarpenak, eta, beraz, 34.1.b artikuluaren interpretazioari jarraipena egiten jarraituko bada ere, gaur egun lehentasunezkoa da, Nafarroan, EEHSKekin batera gai espezifikoagoetan aurrera egitea: Biltegiratzeko, Uzteko eta Itzultzeko Sistemak sinatutako esparru hitzarmenen testuinguruan txertatzea, adibidez.

3. EEHSKek ezezkoa emanez gero, zer jarduketa aurreikusi ditu Departamentuak?

Une honetan, EEHSKak ez daude berariazko ezezko egoeran:

• Ecoembesek adierazi du prest dagoela indarrean dagoen legediak ezartzen dituen kostuak bere gain hartzeko, errefusaren zatikian dauden ontzien

ingurukoak barne, betiere babes juridiko argia badago.

• Ecovidrioren ustez, bestalde, oharraren aplikazioak ez du eraginik Nafarroan, tratamendu instalazioetan ez baita beira berreskuratzen, eta, beraz, 34.1.b) artikulua ez litzateke aplikagarria izango fluxu horretan.

Nolanahi ere, alderdi horren jarraipena egiten ari da, eta desadostasuna balego, departamentuak bi printzipioren arabera jardungo luke:

• Segurtasun juridikoa, maila egokiko arauen babesa ez duten aldebakarreko erabakiak saihestuz.

• Hitzarmen espezifikoekiko lotura, jarraipen-batzordeak eta kontratuetan desadostasunak ebazteko aurreikusitako prozedurak erabiliz.

4. Ohar teknikoa aplikatuz gero, zer eragin ekonomiko aurreikusi da Nafarroarentzat?

Ez da kalkulu ekonomiko espezifikorik egin Nafarroarako, espezifikoki gai horretarako.

Beste autonomia-erkidego batzuetan, aurretiazko azterlanak egin dira errefusaren zatikian ontziak berreskuratzeak dakartzan kostuei buruz, baina aldakortasun handia dute; neurri batean, zatiki horretan ontziak hartzearen emaitzen heterogeneotasunagatik.

Nolanahi ere, gogorarazi behar da hitzarmena negoziatu zenean mankomunitateek gaikako bilketaren kostu guztiak aztertu zituztela, eta haiek EEHSKek emandako aurreikuspen ekonomikoen arabera jarri zituztela.

Hala ere, beharrezkoa bada, Nafarroako Esparru Hitzarmenak aukera ematen du kostuei buruzko azterketak egiteko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2026ko martxoaren 10ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

---

## 11-26/PES-00047. Galdera, Nafarroako Gobernuaren entitate laguntzaile gisa aitorturik dauden animalien babeserako eta defentsarako elkarteek igorritako gutun irekiari buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Félix Zapatero Soria jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, Nafarroako Gobernuaren entitate laguntzaile gisa aitorturik dauden animalien babeserako eta defentsarako elkarteek igorritako gutun irekiari buruzkoa, 2026ko otsailaren 20ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak informazio hau ematen du, Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Félix Zapatero Soria jaunak egindako idatzizko galderari buruz (11 26/PES-00047):

Nafarroako Gobernuaren entitate laguntzaile gisa aitorturik dauden animalien babeserako eta defentsarako elkarteek gutun irekia igorri zuten (zuri eta talde parlamentarioei) 2026ko otsailaren 10ean; haren bidez, 2026ko urtarrilaren 29ko Osoko Bilkuran egin zenituen adierazpenak jendaurrean zuzentzeko eskatzen zuten, bai eta 19/2019 Foru Legea behin betikoz betetzeko konpromiso irmoa har zenezan ere. Zein da zure erantzuna?

Otsailaren 10ean, entitate laguntzaileen idazki bat jaso zen, eta otsailaren 23ko txosten baten bidez erantzun zitzaion. Hona hemen txostenaren edukia:

Animalien babeserako elkarteen zuzenketa eskakizunari erantzunez

Harriduraz eta txundituta jaso da animalien babeserako elkarte talde batek, 2025eko urtarrilaren 29an Parlamentuan egindako galdera parlamentarioari ahoz emandako erantzuna dela eta, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kotseilariari bidalitako gutuna.

Adierazi behar dugu Aholku Komitea eratzeko saioa berandu deitzea justifikatzen duten egitate objektibo eta egiazko batzuez baliatzen dela kontakizuna, 19/2019 Foru Legea bete dadin inplikatutako entitate guztien kudeaketari eta ekintzarik ezari kritika orokorra egiteko, gutuna sinatzen duenak aski ezagunak dituen inguruabar asko alde batera utzita, eta errealitatearen ikuspegi partzial batez.

Honako alderdi hauek eztabaidaezinak dira, objektiboak dira eta:

Lehena. Aholku Komitearen osaera arautzen duen 94/2022 Foru Dekretua 2022-11-30ean sartu zen indarrean. Data horrek markatzen ditu Aholku Komitea abian jartzeko denborak, ez beste ezerk, eta gai horri erantzun behar zitzaion Parlamentuan.

94/2022 Foru Dekretuak, urriaren 26koak, lagun egiteko animaliak babesteari buruzko apirilaren 4ko 19/2019 Foru Legearen erregelamendua onetsi zuen. 2022ko azaroaren 29an argitaratu zen NAOn eta 2022ko azaroaren 30ean sartu zen indarrean. Horixe da, eta ez besterik, planteatutako gai parlamentarioari erantzuteko abiapuntu izan behar dugun denbora-puntua.

Foru-dekretu horrek arautzen du komitearen osaera; kide horien artean daude "entitate laguntzaile gisa aitorturik dauden animalien babeserako eta defentsarako elkarteen hiru ordezkari. Entitateek hiru titular eta hiru ordezko hautatuko dituzte" (94/2022 Foru Dekretuaren 83.1.f artikulua).

Foru-dekretua egiteko epeei buruzko edozein aipamenek ez du zerikusirik galdera parlamentarioarekin, nahiz eta gai hori geroago azalduko den.

Bigarrena. Zehaztu behar dugu entitate laguntzailearen figura ez zegoela irekita 2023ko martxora arte. Elkarteek bazekiten, 94/2022 Foru Dekretua 2022-11-29ko NAOn argitaratu zenetik, zer baldintza bete behar ziren entitate laguntzaile gisa aitortuak izateko.

94/2022 Foru Dekretuak arautzen ditu foru-legeak gerorako erregelamenduaren bidez garatzeko utzitako alderdi ugari; besteak beste, animalien babeserako elkarteak entitate laguntzaile gisa aitortzeko prozedura eta baldintzak (horrek ematen zuen, besteak beste, Aholku Komitean parte hartzeko aukera).

Foru-dekretuaren 69. artikuluan zehazten da elkarte batek zer baldintza bete behar duen animalien babeserako elkarteen eta entitate laguntzaileen erregistroan entitate laguntzaile gisa aitortzeko eta inskribatzeko, bai eta eskabide-ereduarekin batera zer dokumentazio aurkeztu behar den ere.

Eskabide-eredu hori 2023ko martxoaren 1ean egon zen eskuragarri; hau da, foru-dekretua indarrean sartu eta handik 3 hilabetera (alegia, 2022ko azaroaren 30etik 2023ko martxoaren 1era), eta ez lau urtera, gutunean adierazten den bezala.

Ondoren aipatzen den zazpi urteko atzerapena eta gutunean egindako beste adierazpen batzuk (“Urtez urte entzuten ditugu, zure ahotan, ‘laster’, ‘berehala’ eta antzeko adierazpenak... ia ezer aldatu gabe”, esaterako) talde parlamentario bateko ordezkariak, hitzez hitz, kontseilariaren Parlamentuko agerraldian egindako adierazpenak dira.

Hiru hilabete horietan, egin beharreko izapide administratibo eta informatikoak egin ziren web fitxa bat abian jartzeko, horren bidez elkarteek eskabidea telematikoki aurkezten ahal izan zezaten; pertsona juridikoak dira eta administrazioarekin modu elektronikoan harremanetan jartzeko betebeharra dute.

Bilerak egin ziren Extr@ espedienteen kudeatzailean prozedura konfiguratzeko, tramiteen katalogoaren fitxa egiteko eta hori prozedurarekin lotzeko; hain zuzen, interesdunek web fitxaren bidez izapidetzen ahal izan zezaten dokumentuak aurkeztea, zuzentzea eta errebokatzea.

2023ko otsailaren 27an jakinarazi zitzaigun prozedura prest zegoela, eta 2023ko martxoaren 1ean ohartarazteko lehen mezu elektronikoa bidali zitzaien animalien babeserako 19 elkarteri, zeinen harremanetarako datuak baikenituen. Bidalitako mezuan esaten zitzaien ezagutzen zituzten elkarte guztiekin partekatzeko hura, guztiek izan zezaten izapide elektronikoa egiteko aukeraren berri. (Ikus 1. eranskina. Animalien babeserako elkarteei 2023-03-01ean bidalitako mezua)

Hirugarrena. Entitate laguntzaile gisa aitortutako elkarteen komiteko kide gisa hautatzen ahal izateko, sei kide baino gehiago behar dira, haien artean hiru ordezkari eta hiru ordezko aukeratu behar baitituzte, eta hori ez zen 2024ko azarora arte gertatu.

2022. urtearen amaieran, genituen datuen arabera, 30 elkarte inguru zeuden erregistratuta Nafarroako Elkarteen Erregistroan; bertan erregis-

tratuta egotea nahitaezko baldintza da entitate laguntzaile gisa aitortua izateko.

2023-03-01ean 19 elkarteei mezu elektronikoa bidali ondoren (19 elkarte horiekin genuen kontaktua), lagun egiteko animalien ataleko helbide elektronikoan hainbat mezu jaso ziren, elkarte bat sortzeko edo inskribatzeko moduari buruzko zalantzak adierazten zituztenak, eta horiei erantzun zitzaien, elkarte eta entitate laguntzaileen erregistroan inskribatzeko tramiteen fitxara bidalita.

2023-03-16an mezu bera bidali zitzaien hasieran hura jaso ez zuten beste zazpi elkarteri, eta beste elkarte batzuekin partekatzeko eskatu zitzaien haiei ere. (Ikus 2. eranskina. Animalien babeserako elkarteei 2023-03-17an bidalitako mezua)

Beraz, 2023ko martxoan, 26 elkartek entitate laguntzaile gisa inskribatzeko aukerari buruzko zuzeneko informazioa jaso zuten ataletik.

Entitate laguntzaile gisa aitortzeko aukera dagoenetik aurkeztutako eskabideen eta erregistroan egindako inskripzioen data zehatz eta objektiboek ez dute engainatzen:

1. 2023. urtean:

Lau inskripzio egin ziren:

| ELKARTEAREN IZENA | DATA ESKABIDEA | DATA INSKRIPZIOA |
|---|---|---|
| REFUGIO MUSKARIA ELKARTEA | 2023-03-13 | 2023-06-13 |
| REFUGIO ARANZADI KATUAK ELKARTEA* | 2023-04-27 | 2023-08-01 |
| EGAPELUD@S ELKARTEA | 2023-06-15 | 2023-08-01 |
| KATU KALEKO* | 2023-10-20 | 2023-10-27 |

* Elkarte horiek inskribatu ziren, hori baldintza zelako Iruñeko Udalak harrera-zentro bat lagatzeko.

2. 2024. urtean:

Entitate laguntzaile gisa aitortutako elkarteentzako laguntzen deialdia egin zen urte hartan lehen aldiz. 2024-04-19an, mezu elektroniko bat bidali zitzaien elkarteei, laster deitu beharreko laguntzen lerroaren berri emateko, eta, horietan sartzen ahal izateko, entitate laguntzaile gisa inskribatzea komeni zela jakinarazteko. (Ikus 3. eranskina. Animalien babeserako elkarteei 2024-04-19an bidalitako mezua)

2024-05-09an informazio bilera batera deitu ziren. Urte hartan, martxoaren 15era arte ez zen jaso lehen aitortza-eskabidea (ikus 4. eranskina. Animalien babeserako elkarteei 2024-05-02an bidalitako mezua)

Bost inskripzio egin ziren:

| ELKARTEAREN IZENA | DATA ESKABIDEA | DATA INSKRIPZIOA |
|---|---|---|
| COMARCATS ELKARTEA | 2024-05-15 | 2024-06-24 |
| GATICOS FELICES | 2024-06-14 | 2024-07-02 |
| KATUÑAIN ELKARTE ANIMALISTA KATUÑAIN | 2024-06-20 | 2024-07-02 |
| CER ABLITAS ELKARTEA | 2024-06-06 | 2024-07-23 |
| ARE KATAKUMEAK ELKARTEA | 2024-07-26 | 2024-09-30 |

2024-10-01ean, bederatzi entitate laguntzaile zeuden inskribaturik (2023ko martxoan informazioa zuzenean bidali zitzaien 26en herena); kopuru horrek ez zituen elkarteak behar bezala ordezkatzen.

3. 2025. urtean:

Atalak, entitate laguntzaile gisa aitorturik ez dauden elkarteak dituzten udalen bidez, horiek inskribatzeko animatzeko deia egin du berriz ere.

Hiru inskripzio egin ziren urte horretan:

| ELKARTEAREN IZENA | DATA ESKABIDEA | DATA INSKRIPZIOA |
|---|---|---|
| TXIKAS DE ETXAURI ELKARTEA | 2025-01-14 | 2025-03-27 |
| LOS AMIGOS DE BAMBÚ | 2025-10-08 | 2025-11-20 |
| PATITAS LODOSANAS ELKARTEA | 2025-10-10 | 2025-11-20 |

Gaur egun erregistratuta dauden entitate laguntzaileen taula osoa

| NOMBRE ASOC. | FECHA SOL | Nº REGISTRO | Resultado final |
|---|---|---|---|
| ASOC. REFUGIO MUSKARIA | 13/03/2023 | 2023/328242 | RES 495E/2023, de 13 de junio |
| ASOC. REFUGIO ARANZADI KATUAK | 27/04/2023 | 2023/562843 | RES 530E/2023, de 1 de agosto |
| ASOC. EGAPELUD@S | 15/06/2023 | 2023/843944 | RES 529E/2023, de 1 de agosto |
| KATU KALEKO | 20/10/2023 | 2023/1423109 | RES 601E/2023, de 27 de octubre |
| ASOC. COMARCATS AYUDA PARA GATOS DE LA COMARCA DE SANGÜESA | 15/05/2024 | 2024/643729 | Res 160E/2024, de 24 de junio |
| ASOC. CER ABLITAS | 06/06/2024 | 2024/767278 | RES 173E/2024, de 23 de julio |
| GATICOS FELICES | 14/06/2024 | 2024/810630 | RES 164E/2024, de 2 de julio |
| ASOC. ANIMALISTA KATUÑÁIN | 20/06/2024 | 2024/843288 | RES 167E/2024, de 2 de julio |
| ASOC. ARRE KATAKUMEAK | 26/07/2024 | 2024/996204 | RES 221E/2024, de 30 de septiembre |
| ASOCIACIÓN TXIKAS DE ETXAURI | 14/01/2025 | 2025/42855 | RES 59E/2025, de 27 de marzo |
| LOS AMIGOS DE BAMBÚ | 08/10/2025 | 2025/1330511 | RES 301E/2025, de 20 de noviembre |
| ASOCIACIÓN PATITAS LODOSANAS | 10/10/2025 | 2025/1346625 | RES 303E/2025, de 20 de noviembre |

Laburbilduz: 2024ko urrira arte ez zen izan, Aholku Komitean, animalien babeserako elkarte guztiekiko, horiek behar bezala ordezkatzeko moduko elkarte kopururik. Egoerak ia ez du hobera egin 2025eko lehen hiruhilekoan, beste elkarte bat besterik ez, eta, beraz, komitearen eraketa gehiago ez atzeratzea erabaki da.

Laugarrena. Komiteko kideei 2025eko otsailaren 24an eskatu zitzaien ordezkariak izendatzeko, entitate laguntzaile kopuru nahikoa baitzegoen orduan haien artean ordezkariak aukeratzeko.

2025-02-24an, Aholku Komitearen eraketa gehiago ez atzeratzeko erabakia hartuta, entitate laguntzaile gisa aitortutako animalien babeserako elkarte gutxi egon arren, mezu elektronikoa bidali zitzaien kide guztiei ordezkariak izendatzeko.

2025-04-22an, ordezkariak izendatzeko beharra gogorarazteko, mezu elektroniko bat bidali zitzaien entitate laguntzaileei; izan ere, denbora igaro arren, haiek ziren izendapena egin gabe zuten bakarrak (ikus 5. eranskina. Animalien babeserako elkarteei 2025-04-22an bidalitako mezua). 2025-04-24an jaso zen bidalitako mezuaren erantzuna. Apirilaren 28an elkarteen izendapena zuzentzeko errekerimendua egin zitzaien, eta 2025-05-06an zuzendu zen.

2025eko ekainaren 24ko 183E/2025 Foru Aginduaren bidez, Aholku Komiteko kide bakoitzaren ordezkariak izendatzea erabaki zen, eta 2025eko abuztuaren 1eko 153. zenbakiko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Egia da Animalien Babeserako Aholku Komiteak lehenbailehen bilera egin behar zuela, baina hainbat inguruabarrek atzeratu egin zuten; esaterako, animaliak babesteko laguntzak eskatzeko eta horiek justifikatzeko epearekin bat etorri zen, toki-entitateak zein elkarteak beraiek inplikatuta zeuden horretan, eta horrek zaildu egin zuen urteko azken hiruhilekoan komitearen bileraren deialdia egitea.

Azaldutakoa datu objektiboak dira, data zehatzak dituzte eta dokumentuek bermatzen dute, batez ere, komiteko ordezkarien izendapena egin ezina izan dela komitea oraintsu arte ez eratzeko arrazoi nagusia; hain zuzen ere, ez zegoelako nahikoa entitate laguntzailerik bertan eskatutako ordezkaritza lortzeko.

Idazkiak jasotzen dituen ustezko ez-betetzeen inguruko balorazioek eta adierazpenek ez dute zerikusirik Aholku Komitea berandu eratzearekin. Gai desberdinak nahasteko ahalegina egiten da bertan, tonu katastrofikoan, eta agerian geratzen da ez dela inola ere errealitatea ezagutzen.

Ukatzen dugu emandako datak eta datuak interesatuak eta okerrak direla, gutunak dioen bezala, eta horietako bakoitza aipatuko dugu:

1. Egia da 19/2019 Foru Legearen bigarren xedapen iragankorrak sei hilabeteko epea ezartzen zuela garapen-erregelamendua egiteko, eta hori, azkenean, urriaren 26ko 94/2022 Foru Dekretuaren bidez onetsi zela. Hala ere, sinatzen duten entitateek ez dute aipatu, nahita, zer gertatu zen aldi horretan eta zergatik ez zen onetsi erabakitako epean.

Lehenik eta behin, arlo horretako eskumenak dituen unitate organikoa sortu beharra zegoen (lehen xedapen iragankorrak aurreikusitakoa). Urriaren 23ko 258/2019 Foru Dekretuak Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren egitura organikoa onetsi zuen, eta arau horren bidez sortu zen, Abeltzaintza Zerbitzuan, Animalien Osasunaren Atala. Animalien Osasunaren Atala sortu ondoren, funtzionatzeko behar zituen giza baliabideez hornitu zen.

Martxoaren 4ko 22/2020 Foru Dekretuak, zeinaren bidez aldatzen baita Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoa, ezarri zuen beharrezkoak ziren plazen sorrera. Hala ere, COVIDaren pandemia iritsi zela-eta, kontratazioak gelditu ziren. 2020ko ekainean amaitu zen atala giza baliabidez hornitzen.

2020ko urrian 19/2019 Foru Legea garatzeko foru-dekretuaren proiektua egiteko kontsultak eta bilerak hasi ziren. Ia bilera eta kontsulta guztiak telematikoki egin behar izan ziren pandemia egoeraren ondorioz. Online bilerak egin ziren inplikatutako erakunde, instituzio eta entitate guztiekin; besteak beste, animalien babeserako elkarteekin.

Araua egiteko egin beharreko izapide guztiak egin ziren, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Sektore Publiko Instituzionalari buruzko 2019ko martxoaren 16ko 11/2019 Foru Legean zehaztutakoak. Gobernu Irekiaren Atarian jendaurrean jarritako lehen testua 2021eko maiatzean argitaratu zen.

2021eko urrian animalien babesari buruzko estatuko legearen lehen zirriborroa jaso genuen. Eztabaidatu zen foru-dekretuarekin aurrera jarraitu ala ez, gerta zitekeelako, ziur aski, Estatuko araua bat ez etortzea gure foru-arauan arautulakoarekin. Hala ere, foru-dekretuaren tramitazioarekin aurrera jarraitzea erabaki zen, animalien babesari buruzko beren legeen erregelamenduak egin behar zituzten beste-autonomia-erkidegoek ez bezala, zeinek, guk dakigula, ez baitute halakorik egin.

Hortik abiatuta, egin beharreko txostenak egin ziren, eta arauaren testua helarazi zitzaien, txostena egin zezaten, Toki Araubideko Foru Batzordeari, Nafarroako Gobernuaren Araugintzako Zerbitzuari eta Nafarroako Kontseiluari, besteak beste. Azkenik, Nafarroako Gobernuaren 2022-10-26ko erabakiaren bidez onetsi zen testua, eta 2022ko azaroaren 30ean sartu zen indarrean.

2. Foru-legea lagun egiteko animalien babesari buruzko Espainiako lehen legea izan zela dioen adierazpena, jakina, osatu gabeko esaldia da; izan ere, adierazi nahi zen Nafarroa izan zela animalien babesari buruzko lege bat horri dagokion erregelamenduaren bidezko garapenaz onetsi zuen lehen autonomia-erkidegoa, lege berrien artean, zeinek aldatu baitituzte, 2016. urteaz geroztik, hainbat autonomia-erkidegotan indarrean zeudenak.

Lagun egiteko animalien eskubideei eta ongizateari buruzko martxoaren 21eko 7/2023 Legeak eta, ondoren, hainbat erregelamenduren bidezko haren garapenak foru-dekretuaren artikuluak aldatzera eramanen gaituzte, estatuko legea indarrean sartu ondoren arlo horretako eskumenez egindako txosten juridikoan adierazi zen bezala.

Harrigarriena hau da: akats horretatik, sinatzaileek ondorioztatzea legea nagusiki eta sistematikoki urratzen ari dela, eta departamentu hau dela ez-betetze horren erantzule nagusia, horri buruzko datu zehatz eta justifikatu bakar bat eman gabe. Hori bai, instituzio eta erakunde bakoitzak legea betetzeko dituen eskumen eta erantzukizunei buruz erabateko ezjakintasuna dutela erakusten dute.

19/2019 Legeak eskumenak banatzen ditu administrazioen, instituzioen eta entitateen artean. 22.1 artikuluan, toki-entitateei dagozkienak, hemen zerrendatuko ez ditugunak, eta animalien osasun, identifikazio eta ongizatearen arloan eskumena duen Nafarroako Gobernuko departamentuari dagozkionak, 22.2 artikuluan:

a) Subsidiarioki jardunen du, udalek, udalez gaindiko entitateek eta eskualdeek jarduten ez dutenean, foru-lege honetan xedatutakoaren araberako zaintza eta ikuskapen lanetan.

b) Foru-lege honetan ezarritako Lagun Egiteko Animalien Nafarroako Erregistroaren kudeaketaz eta funtzionamenduaz arduratuko da.

c) Lagun egiteko animalien nahitaezko tratamenduak eta txertatzeak zehaztuko ditu, bai eta haien isolatzea xedatu ere, animalia-osasuneko arrazoiengatik.

d) Lagun egiteko animalien zentroak gune zoologiko gisa baimendu eta erregistratuko ditu, eta horiek bete behar dituzten gutxieneko baldintza higieniko-sanitarioak ezarriko ditu, baita katu-kolonien kasuan ere.

e) Entitate laguntzaileen erregistroaren eta Animalien Babeserako Aholku Komitearen sorrera eta kudeaketa arautuko ditu.

f) Animaliekin ikuskizun, feria, erakusketa, lehiaketa, filmazio eta abarrekoak egiteko behar den baimen administratiboa emanen du.

g) Animalien hilketarako edo eutanasiarako protokoloak eginen ditu.

h) Animalien babesari buruzko prestakuntza, zabalkunde eta informazio jarduerak sustatuko ditu.

Administrazio publiko orok berezkoa du koordinazio lana, eta, administrazio bakoitzari dagozkion eskumenak gauzatzeko, guztiek administrazioen arteko harremanak arautzen dituzten printzipioen arabera jardun behar dute: bakoitzak bere eskumenak egikaritzearekiko errespetua, leialtasun instituzionala, koordinazioa, lankidetza eta elkarlana, besteak beste. Printzipio horiek aplikatuz, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak bere eskumen materialak egikaritzen jardun du une oro.

3. Ezinegona eragiten die komitearen eraketan izandako atzerapena justifikatzeko erabilitako argudioak: alegia, elkarteen erantzukizuna dela. Puntu horretan, datu objektibo bat eman da: komitean ordezkariak izendatzeko, entitate laguntzaileen kopuru nahikoa egon behar zen, baina hori ez zen gertatu, kopuru hori ez baitzen 2024. urtearen amaierara arte izan.

Kontua ez da inor erantzule egitea, ezta errudunak bilatzea ere; kontua da komitea berandu eratu izanari buruz arrazoi objektiboak ematea. Parlamentuak eskatu ditu arrazoi horiek, eta kontseilariak eman ditu. Horrek ez du zerikusirik batzuei edo besteei haien jokaera leporatzearekin.

4. Departamentu honek elkarteak entitate laguntzaile gisa erregistratzeko egindako kontzientziazio- eta informazio-lana ukatzen da. Berriz ere datu partzialak eta interesdunak ematen dituzte.

a) Animalien babeserako elkarteek foru-dekretua eta foru-legea bera egiteko prozesuan parte hartu zuten.

b) Lehen esan bezala, elkarteekiko harremana etengabea izan da; ez mezu elektronikoen bitartez bakarrik, baita telefono dei edo bileren bidez ere. Kontrakoa esatea, argi eta garbi, egia ez esatea da. Eta baliabide guztiak erabili dira, behin eta berriz, entitate laguntzaile gisa inskriba zitezen, frogatuta geratu den bezala. (Ikus 6. eranskina: Animalien babeserako elkarteekin posta elektroniko bidez izandako harremanak)

c) Departamentu hau prest egon da beti animalien babeserako elkarteen zalantzak eta gaiak argitzeko. Hain zuzen, elkarte sinatzaileetako batek, EGAPELUDOSek, jazarpen- eta eskakizun-estrategia bat erabili du, eskubide-abusutzat eta atalaren jardueraren oztopatzailetzat har daitekeena, etengabe gaiak planteatuz, informazio eskaerak eginez, jarduketak zalantzan jarriz eta atalaren funtzionamendu normala eragozteko moduko bertako baliabideen mobilizazioa eskatuz.

Jarraian, posta elektroniko bitartez egindako kontsultei buruz ateratzen ahal izan ditugun datuak zehaztuko ditugu (241 mezu), eta horiei gehitu beharko litzaizkieke telefono deiak, kontabilizatu gabe ditugunak, zein Gardentasunari eta Gobernu Onari buruzko 5/2018 Foru Legean oinarritutako informazio publikoko eskaerak (sei eskaera 2023an, hiru eskaera 2024an eta bi eskaera 2025ean), bai eta Parlamentuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean egindako bi agerraldiak ere (2023-03-10 eta 2025-11-12), UPNren eskariz egindakoak, zeinak departamentua egin baitzuen Foru-legea ez betetzearen erantzule:

| EGAPELUDOS-EN KONTSULTA-MEZUAK | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| 2020. URTEA | 2021. URTEA | 2022. URTEA | 2023. URTEA | 2024. URTEA | 2025. URTEA |
| 13 | 15 | 28 | 70 | 89 | 26 |

d) Laguntza ekonomikoei buruz adierazitakoak erakusten du, beste behin ere, hori azaltzen duenak ez duela inola ere errealitatea ezagutzen, eta sumin-erantzun azkar baten ondorio dela dirudi, erantzun logiko, lasai eta arrazoitu bat baino gehiago.

2024an, toki-entitateei zuzendutako animalien babeserako laguntzen lerroak (ez animalien babeserako elkarteei zuzendutakoak), foru-agindu bidez onetsitakoak, lehentasuna eman zion toki-entitateek, entitate laguntzaile gisa aitortutako animalien babeserako elkarteekin batera, animaliak babesteko jarduketak egiteari, erregistratu gabekoekin edo entitate pribatuekin batera egindakoen aldean. Horrela, zeharka, entitate laguntzaileen erregistroa bultzatzen zen, toki-entitateek jaso beharreko laguntzaren ehunekoa handiagoa izanen baitzen.

Horren ondorioz, elkarte gehiago erregistratu ziren entitate laguntzaile gisa.

5. Bide batez, departamentu honen aurka egiten dute, honako hauek adieraziz: “Zuek berandu eta gaizki garatzen eta aplikatzen ari zarete araudi horiek” edo “eginkizunak alde batera uzten ari dira, partikularren borondate onaren edo elkarteen beraien esku gehiegizko delegazioa eginez”. Eta “lege honen aplikazioan gaur egun dagoen desordena, kontrolik eza eta koordinaziorik eza” salatzen dute. Era berean, honako hau adierazten dute: “Foru-lege oso bat betetzearen pisua, batez ere, elkarteetako boluntarioen eta elkarte horien baliabide pribatuen gain utzi da bidegabeki”.

Egia esan, adierazpen hutsalak baino ez dira. Departamentu honek elkarteen lana aitortzen du, baina gogorarazi nahi diegu haiek ere legeak ezarritakoa bete behar dutela:

– Jarduteko erabiltzen dituzten instalazioak erregularizatuz, aldi baterako harrera zentro gisa.

– Onetsitako eta baimendutako harrera zentroetatik jardunez; hiru elkartek baino ez dute betetzen alderdi hori, haietako batzuek baimendu gabeko instalazioetan bildu eta izaten baitituzte animaliak.

– Baimendutako identifikazio-, esterilizazio- eta txertatze-jarduketak eta adopzio programak eginez, foru-legean araututakoaren arabera.

Departamentu honek elkarteei legearen arabera jarduteko exijitu izan balie, oso gutxik jarraituko lukete lanean. Hala ere, funtsezko lana egiten dutela uste dugu, eta denbora eman behar zaiela araudi berrira eta erakunde eta instituzio bakoitzaren eskumen eta funtzioen doikuntzara egokitzeko, nahiz eta urte batzuk igaro diren foru-legea eta foru-dekretua indarrean sartu zirenetik.

Foru-legeak ezartzen du “Animalien Osasunaren Atala” unitate organikoaren xedea izanen dela foru-lege honetan ezarritakoa betearaztea, koordinatzea, kontrolatzea eta garatzea. Hori dela-eta, honako hau egiten du atalak:

– Lehen aipatutako 22.2 artikuluan garatutako eskumenak betearazten ditu, araututakoaren arabera.

– Arloak eta foru-legean parte hartzen duten identitateak koordinatzen ditu.

– Bere eskumenak baliatuz dagozkion kontrolak egiten ditu, eta foru-legean ezarritakoa aplikatzen dela zaintzen du.

– Foru-legea arauen bidez garatzen du.

Zeregin horiek guztiak eraginkortasunez egiten ari dira, unitate organikoa sortu eta ondoren aldatu zenetik.

Diotenez, ez dago ibilbide-orririk, ez dago planik eta ez dago bitartekorik. Adierazpen merkea da, ezjakintasunetik egindakoa. Atalak 2019an egindako jarduketa plan bat du, eta 2024an aldatu zen. Jarduketa plana Animalien Osasunaren Atalarentzako antolaketa- eta lan- proposamen bat da; Nafarroan lagun egiteko animaliak babesteari buruzko 19/2019 Foru Legearen aginduz sortu zen aipatutako atala.

7/2023 Legeak 18. artikuluan ezartzen duenez, autonomia-erkidegoek animaliak babesteko lurralde programa bat izan beharko dute. Animaliak babesteko estatuko planak ezarritakoaren araberakoa izanen da programa hori (Animalien Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak egingo du plan hori). Estatuko programa ez da oraindik argitaratu, eta lurralde planari dagokiona 7/2023 Legea garatzeko errege dekretuan jasoko da; errege dekretu hori zirriborro fasean dago oraindik.

Urteotako komunikazioa, adostasuna eta partehartzea egiaztatuta geratu dira atalak garatutako jarduketa, bilera, komunikazio eta araugintzako lanekin.

Azaldutakoagatik, uste dugu ez dela egokia zuzenketa publikorik egitea; izan ere, egindako galdera parlamentarioari emandako erantzunak errealitateari erantzuten dio, eta horrela baieztatzen dute emandako datu objektiboek.

Azkenik, animalien babeserako elkarteen lana nabarmendu eta aitortu besterik ez dugu egin nahi, funtsezko zutabeetako bat baitira legearen eta haren garapen-araudiaren aurreikuspenak errealitate izan daitezen.

## Eranskina

1. Animalien babeserako elkarteei 2023-03-01ean bidalitako mezua

mi. 01/03/2023 8:40

Bienestar Animal (Departamento DRyMA)

**Ficha web del registro de asociaciones**

'ara

:CO Egapeludos; Refugio Muskaria Tudela; Gaticos Felices; info@refugioaranzadikatuak.org; 9vidasberiain@gmail.com; cerablitas@hotmail.com; cercascante@gmail.com; centrocaninocanbezuelos@gmail.com; michel.fernandez.manrique@gmail.com; Marcilla Rescate Animal; Txikasetxauri@gmail.com; Adopta Navarra; presidente@basati.org; animAcción Tudela; KATX FeliNa; Santuario animal Corazón verde; anifalces@gmail.com; cesansoain@gmail.com; protectorapamplona@hotmail.com

Buenos días,

Ya está listo el procedimiento para que solicitéis la inscripción en el registro de asociaciones de protección y defensa de los animales de compañía y entidades colaboradoras.
Os adjunto el enlace de la ficha: https://www.navarra.es/es/tramites/on/-/line/registro-de-asociaciones-de-proteccion-y-defensa-de-los-animales-de-compania-y-entidades-colaboradoras?back=true&pageBackId=5722676
En el enlace aparece la información general y unas instrucciones. Si tenéis cualquier problema, podéis contactar en los teléfonos que aparecen en la propia ficha.
Enviamos este correo a las asociaciones de las que tenemos datos, podéis compartirlo con todas aquellas asociaciones que conozcáis, el objetivo es que todas estéis inscritas.
Gracias por vuestro trabajo.
Un cordial saludo,

**Sección de Bienestar Animal**
Servicio de Ganadería
Dpto. Desarrollo Rural y Medio Ambiente
C/ González Tablas, nº 9, 2ª planta. 31005 Pamplona
e-mail: bienestar.animal@navarra.es

2. Animalien babeserako elkarteei 2023-03-17an bidalitako mezua

Bienestar Animal (Departamento DRyMA) libertadanimalnavarra1@gmail.com; parn.adopciones@gmail.com; ireneph13@gmail.com; angonher4f@gmail.com; elsa_8519@hotmail.com; + 2 16/03/2023

Ficha web del registro de asociaciones

Mensaje reenviado el 17/03/2023 9:21.
Mensaje enviado con importancia Alta.

Buenos días,

Os escribimos de la Sección de Bienestar Animal de Gobierno de Navarra para informaros de que ya está listo el procedimiento para que solicitéis la inscripción en el registro de asociaciones de protección y defensa de los animales de compañía y entidades colaboradoras.
Es posible que os hubiese llegado esta información a través de otras asociaciones, pero por si acaso no lo conocéis, adjuntamos el enlace de la ficha: https://www.navarra.es/es/tramites/on/-/line/registro-de-asociaciones-de-proteccion-y-defensa-de-los-animales-de-compania-y-entidades-colaboradoras?back=true&pageBackId=5722676
En el enlace aparece la información general y unas instrucciones. Si tenéis cualquier problema, podéis contactar en los teléfonos que aparecen en la propia ficha.
Enviamos este correo a las asociaciones de las que tenemos datos, podéis compartirlo con todas aquellas asociaciones que conozcáis, el objetivo es que todas estéis inscritas.
Gracias por vuestro trabajo.
Un cordial saludo,

**Sección de Bienestar Animal**
Servicio de Ganadería
Dpto. Desarrollo Rural y Medio Ambiente
C/ González Tablas, nº 9, 2ª planta. 31005 Pamplona
e-mail: bienestar.animal@navarra.es

3. Animalien babeserako elkarteei 2024-05-02an bidalitako mezua

Sección de Animales de Compañía y de Experimentación (Departamento DRyMA) marcillarescateanimal@gmail.com; centrocaninocanbezuelos@gmail.com; animacciontudela@hotmail.com; + 17 25/04/2024

Reunión de asociaciones de protección animal y ayudas

Mensaje reenviado el 02/05/2024 16:12.

Buenos días.
Os convocamos a una reunión con el propósito de informaros sobre la convocatoria de ayudas 2024 dirigida a las entidades colaboradoras y a fin de aclarar las dudas que tengáis sobre lo que la normativa actual regula en relación al registro de las asociaciones de protección animal.
La reunión la celebraremos en el salón de actos del Departamento de Desarrollo Rural y Medio Ambiente, (Calle Gonzalez Tablas 9, Pamplona), el día jueves 9 de mayo de 2024 a las 9:30 hs.
Si alguien prefiere asistir a la reunión de forma telemática, decídnoslo para que os enviemos el enlace de conexión.
Muchas gracias.

**Sección de Animales de Compañía y de Experimentación**
*Servicio de Ganadería. González Tablas 9, 2º piso. Pamplona*

Gobierno de Navarra
Departamento de Desarrollo Rural
y Medio Ambiente

Nafarroako Gobernua
Landa Garapeneko eta
Ingurumeneko Departamentua

4. Animalien babeserako elkarteei 2024-04-19an bidalitako mezua

Sección de Animales de Compañía y de Experimentación (Departamento DRyMA) marcillarescateanimal@gmail.com; presidente@basati.org; centrocaninocanbezuelos@gmail.com; + 20 19/04/2024

**Registro de asociaciones de protección anima y ayudas**

Mensaje reenviado el 19/04/2024 16:32.

Buenos días

– Galdera honi erantzuten zaion egunean, funtsak zein kopuru ekonomiko ditu eta nondik datoz kopuru horiek?

Funtsa oraindik ez dago eratuta, eta, beraz, martxan jartzeko zenbatekoa funtsa eratzeko lanak amaitutakoan eta sortu dela iragarri daitekeenean jakingo da.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2026ko martxoaren 10ean

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

---

## 11-26/PES-00053. Galdera, Sendaviva parkean 2025ean izandako bisitariei buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak Sendaviva parkean 2025ean izandako bisitariei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko otsailaren 20ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko martxoaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak 11-26/PES-00053 galdera egin du, idatziz, Sendaviva–Nafarroako Natur Parkeko 2025. urteko sarbide- eta sarrera-datuei buruz. Hona hemen Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

2025ean 188.365 bisitari sartu ziren parkera. Horien artean, 175.887 sarrera saldu ziren, eta gainerakoa merkataritza-ekintzen, parkeko langileen eskaeren, zozketen eta antzeko beste sustapen batzuen ondoriozko gonbidapenak izan ziren. Gainera, 2025ean nabarmendu behar da 7.600 pertsona joan zirela Espainiako Vueltako Nafarroako etaparen irteeraz gozatzera, egun horretan ate irekien jardunaldia egin zela baliatuz.

2025ean saldutako sarreren guztizko zenbatekoa 2.575.148 eurokoa (BEZik gabe) da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen dena betez.

Iruñean, 2026ko martxoaren 9an

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

## 11-26/PES-00054. Galdera, beharturik eta baimenik gabe esterilizatutako desgaituei buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier Arza Porras jaunak beharturik eta baimenik gabe esterilizatutako desgaituei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko otsailaren 20ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko otsailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Nafarroako EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Javier Arza Porras jaunak 11-26/PES-00054 informazio-eskaera aurkeztu du. Honako hau jakinarazten dio Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak horren inguruan:

Ezin izan da eskatutako informazioa eskuratu osasuneko datu-basean.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2026ko otsailaren 23an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

## 11-26/PES-00055. Galdera, Nafarroako Gobernuaren jarduketei buruzkoa, fiskalizaziorik egin ez izanari buruzko txostena ikusita

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, Nafarroako Gobernuaren jarduketei buruzkoa, fiskalizaziorik egin ez izanari buruzko txostena ikusita, 2026ko otsailaren 27ko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko martxoaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak hauxe jakinarazten du, PPN talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Maribel García Malo andreak idatziz formulaturiko galderari loturik (11-26/PES-00055):

Gertakari hori, dakiguneraino, behin gertatu da. Egoera sistema honen bitartez lehenengoz jarduteagatik gertatu zen. Halaber, aipatu behar da, orain arte espediente horrekin lotuta garatutako prozesu guztiek ez zutela intzidentziarik sortu eta fiskalizazio positiboko xede izan zirela.

Nolanahi ere, gertakariaren inguruko inguruabarrak aztertu dira, etorkizunean horrelako egoerak ez errepikatzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen dena betez.

Iruñean, 2026ko martxoaren 17an

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

---

## 11-26/PES-00056. Galdera, despopulazioari buruzko lege berrian despopulazio-arriskuan dauden eremuetako herrietan nahi gabeko bakardadearen kontra borrokatze aldera jasotzen diren neurriei buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, despopulazioari buruzko lege berrian despopulazio-arriskuan dauden eremuetako herrietan nahi gabeko bakardadearen kontra borrokatze aldera jasotzen diren neurriei buruzkoa, 2026ko otsailaren 10eko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foruparlamentari Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-26/PES-00056). Hona hemen Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

Legegintzaldi honen hasieratik, Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiak, Erronka Demografikorako eta Lurralde Egituraketarako Zerbitzuaren bidez, despopulazioaren aurka borrokatzeko neurriak bultzatu ditu, herritarren bizi-kalitatea hobetzen saiatzeko, batez ere adinekoen artean, horiek jasaten baitute nahi ez den bakardadea.

Lurralde Kohesiorako Departamentuan badakigu despopulazio arriskua duten landa eremuen eta udalerrien erronkei eta aukerei heltzeko funtsezko biztanleria taldea direla adinekoak. Horretarako, honako jarduketa hauek gauzatu dira:

1. Bideak Ehuntzen proiektuaren finantzaketaren bidez, zaintza zerbitzua sustatzen da:

a. Zaintzaileei prestakuntza eta laguntza ematea, haien lana hobeto egin dezaten.

b. Adinekoei zuzendutako jarduera programa bat diseinatzea (mantentze fisikoa, estimulazio kognitiboa, fisioterapia, psikologia, jarduera kulturalak). Programak eragin deszentralizatua du eta inguruko hainbat herritan gauzatzeko aukera ematen du. Herritarrak beren udalerrietan egokitutako aretoetara joaten dira, eta aldi berean egiten dute jarduera, telebista pantailen eta konexio digitalaren bidez, non klasea ematen duen pertsona ikusten duten. Horrela, baliabide berberekin, biztanle gehiagorengana iristen da eta haien arteko kontaktua ere sustatzen da.

2. Tokiko ekintza-taldeei RuralNav programaren bidez emandako finantzaketaren bitartez, nahi ez den bakardadea arintzeko neurriak ere hartu dira.

a. Zaintzaren esparrura bideratutako baliabide eta zerbitzu guztiak identifikatu dira, eta horiek aurkitzeko web direktorioak herritarren eskura jarri dira.

b. Zaintzaren esparruan babesa emateko eta laguntzeko auzo-sareak bultzatu eta dinamizatu dira.

c. Lizarraldeko zaintzaileei laguntza psikologikoa eman zaie.

d. Eta AA aplikazio bat probatu da, adinekoei haien etxeetan lagundu diezaiekeena, haien aldartea eta jarduera detektatuz eta haiekin elkarreraginez.

3. Nafarroako Farmazialarien Elkargoaren finantzaketaren bidez, proiektu pilotu bat egiten ari da pastilla-kaxak despopulatutako eremuetan hedatzeko. Programa horren bidez, batez ere, nork zaindu ez duten adinekoak ezagutzen dira, eta beren medikazioa ondo hartzen laguntzen zaie. Horren ondorioz, farmazia-bulegoetan lan egiten duten pertsonekin harremanetan jartzen dira eta lagundurik egoteko sentsazio handiagoa dute.

4. Pirinioetako Planaren jarduketa eremuan honako jarduketa hauek egin dira:

a. Etxez etxeko janari zerbitzuaren proiektu pilotua, bakarrik bizi diren eta nork zaindu ez duten adinekoei zuzendua.

b. Auñamendiko adinekoen zaintzaren beharrari buruzko azterlana, zeinak emaitzak eta ekintzaildoak utzi baititu, hemendik aurrera jarduten jarraitzeko aukera emango digutenak eta Nafarroako beste eremu batzuetara estrapola daitezkeenak.

2026an, aurreko proiektuak bultzatzen jarraitzeaz gain, honako proiektu hauekin lan eginen da:

1. Solera Fundazioarekin batera zerbitzu ibiltarietarako egindako proiektu pilotua. Proiektuaren helburua Nafarroako landa eremuetan adinekoen zahartze aktiboa, osasungarria eta duina sustatzea da, tokiko ingurunera esku-hartze soziosanitarioak, prebentiboak eta komunitarioak hurbilduko dituen zerbitzu ibiltari baten bidez, eskura dauden baliabideak aprobetxatuz eta lurraldearen egiturazko mugei erantzunez. Zerbitzu ibiltari horien jarduketa eremuak honako hauek izanen dira: fisioterapia, estimulazio kognitiboa, zaintzaileei eta adinekoei beraiei prestakuntza ematea (autozaintza, ohitura osasungarriak, estresaren maneiua) eta etxea irisgarria izateko eta egokitzeko aholkularitza ematea.

2. Toki-entitateei zuzendutako dirulaguntzen deialdi bat prestatzen ari da, eta laster aterako da NAOn, despopulazioaren aurka borrokatzeko inbertsioak egiteko. Inbertsio horien artean honako hauek finantzatzea aurreikusi da:

a. Lokalak eta/edo espazioak erostea eta/edo birgaitzea, hala nola erabilera anitzeko gelak (gizarte- eta/edo haur-jantokiak, jubilotekak, ludotekak), zaintzako profesional ibiltariei alokatzeko espazioak (fisioterapia, psikologia, terapia okupazionala eta abar), jarduera fisiko egokitua eta abar.

b. IKTak/Adimen Artifizialeko aplikazioak edo antzekoak erostea, behar bereziak dituzten adinekoei horiek emateko, landa inguruneko adinekoen bizi-kalitatea hobetzen laguntzeko.

c. Ibilgailuak erostea edo egokitzea/mugikortasun irisgarri/egokituko soluzioak, biztanleei oinarrizko zerbitzuak eta zaintza zerbitzuak (hezkuntza, osasuna, zainketak, laguntzak eta abar) eskuratzen laguntzeko.

d. Irisgarritasun baldintzak hobetzeko eta oztopo arkitektonikoak kentzeko jarduketak (oztopo arkitektonikoak kentzeko egiturazko erreformak; arrapalak, igogailuak eta plataforma jasotzaileak jartzea; komunak egokitzea eta irisgarritasun unibertsalerako gaikuntzak; seinaleen hobekuntza –brailezko kartelak eta piktogramak, esaterako–; lokal publikoetan ibilbide irisgarriak sortzea eta abar).

3. Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiak proiektu bat aurkeztu

du Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren deialdian ("Lurralde eraldaketarako eta despopulazioaren aurka borrokatzeko proiektu berritzaileak finantzatzeko dirulaguntzak"). Proiektuak "INNOCUIDA2 proiektua–Ekintzailetza sozialean eta teknologian oinarritutako zainketa transferigarrien lurralde berrikuntzako landa ekosistemak" du izena, eta zaintzaren arloan sakontzen jarraitzeko finantzaketa lortzea du helburu.

Ikus daitekeenez, Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusia erabat inplikatuta dago adinekoen bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzeko, zeinei atal luze bat eskaintzen baitie Nafarroako Despopulazioaren Liburu Zuriak. Era berean, Despopulazioari eta Landa Garapenari buruzko Foru Legeak, gaur egun idazketa fasean dagoenak, pertsona horientzako neurriak jasoko ditu, bere xedean baitago foru komunitateko biztanleentzako oinarrizko zerbitzuak eta aukera berdintasuna bermatzea, ekonomia-, gizarte- eta lurralde-kohesioa lortzeko, nahiz eta gaur gaurkoz ezin diren aurreratu neurri horien xehetasunak.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2026ko martxoaren 10ean

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

---

# 11-26/PES-00057. Galdera, hiriarteko zerbitzuak abiarazi izanari eta taxiek beren lurralde-eremutik kanpo egindako zerbitzuei buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak hiriarteko zerbitzuak abiarazi izanari eta taxiek beren lurralde-eremutik kanpo egindako zerbitzuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko otsailaren 27ko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko martxoaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foruparlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-26/PES-00057). Hona Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak ematen duen informazioa:

1. Garraioen Zuzendaritza Nagusiak jakin al du lizentziadun taxiek kasuko lurralde-eremutik kanpo bidaiarien garraio-zerbitzuak egiten dituztela (arestian aipatutako bidaiari-bilketa eta -garraioak eginez Nafarroako Foru Komunitatearen barruan)?

2. Zenbat aldiz jakinarazi zaio Garraioen Zuzendaritza Nagusiari zerbitzu hori egin dela Tafallara eta Tafallatik eramateko erabiltzaileak, emandako taxilizentziaren lurralde-eremuaren arabera legozkiekeen herriez bestelakoetatik erabiltzaileak hartuta?

Bai, horren berri izan da 2026ko urtarrilaren 18an Erregistro Orokor Elektronikoan aurkeztutako salaketa batengatik eta telefono bidezko harremanak eta aurrez aurreko bilera bat izan delako eremu horretako udalerrietako taxi-lizentzien bi titularrekin.

3. Garraioen Zuzendaritza Nagusiak neurririk hartu al du gertakariak ikertzeko eta, kasua bada, zehapen-espedientea abiarazteko Taxiari buruzko uztailaren 6ko 9/2005 Foru Legearen 46. artikuluan ezarritakoa ez betetzeagatik hiriarteko zerbitzuak abiatzeari dagokionez?

Gertaera horiek Garraioen eta Mugikortasun Jasangarriaren Zuzendaritza Nagusiari jakinarazi zitzaizkionez geroztik, zenbait bilera egin dira Foruzaingoaren eta Guardia Zibilaren Garraioko talde espezializatuekin, salatutako zerbitzuak kontrolatzeko errepidean.

Hainbat kontrol egin dira, eta egindako zerbitzuak ikuskatu eta salaketa-buletinak egin dira, horretarako inguruabarrak betetzen ziren kasuetan.

Foruzaingoak errepidean egindako kontrolen ondorioz, Zuzendaritza Nagusi honetara 3 salaketa-buletin igorri dira, eta, beraz, garraioaren arloko 3 zehapen-espediente ireki dira.

Halaber, mutualitateetako pazienteentzako garraio ez-sanitarioa kudeatzeko eta emateko lizitazioaren enpresa adjudikaziodunari zerbitzu horiei aplikatu beharreko araubide juridikoa helarazi zaio;

araubide hori bat dator Taxiari buruzko uztailaren 6ko 9/2005 Foru Legean aurreikusitakoarekin.

4. Foruzaingoan ba al da salaketarik gertakari horiek direla-eta? Zenbat?

Foruzaingoaren garraioko talde espezializatuari kontsulta egin ondoren, 2 salaketa daudela jaso dute, 2025eko abenduaren 24an eta 2026ko urtarrilaren 14an aurkeztutakoak Tafallako Herritarrentzako Arreta Bulegoan.

Gertakari horiengatik 6 telefono-dei erregistratu ziren.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2026ko martxoaren 16an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

---

# 11-26/PES-00058. Galdera, 2025-2028ko aldirako Enplegu Planaren baitako berdintasun-planak betetzeari buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak 2025-2028ko aldirako Enplegu Planaren baitako berdintasun-planak betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko otsailaren 27ko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko martxoaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Itxaso Soto Díaz de Cerio foru-parlamentariak, Geroa Bai parlamentu-taldeko kideak, 11-26/PES-00058 galdera egin zuen, idatziz erantzun zekion. Bada, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak honako hau erantzun du:

Berdintasun-plana ezarrita daukaten enpresen portzentajea.

Berdintasun-plana ezarrita daukaten enpresen portzentajea % 71,8koa da.

• Indarrean dagoen berdintasun-plana izateko betebeharra daukaten enpresak: 230 (Nafarroan erregistratutako indarrean dagoen plana duten enpresak) eta 111 (Ministerioan erregistratutako indarrean dagoen plana duten enpresak) batuz gero, 341 enpresa dira, 50 langiletik gora dituzten 475 enpresatik.

• Indarrean dagoen berdintasun-plana izateko betebeharrik ez duten enpresak: 96.

Berdintasun-plana ezarrita daukatela erregistratu ez duten enpresen portzentajea.

Berdintasun-plana ez Nafarroan ez Ministerioan erregistratu ez duten eta betebeharra daukaten enpresak 134 dira, hau da, % 28,2.

Plan horiek betetzen direla ziurtatze aldera ikuskaritzak egiten dituen kontrol-neurriak.

Honela deskribatzen du jarduketa horren edukia Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzak bere urteko programan:

• 2.3.4.1 Kontrol-neurriak eta berdintasun-planak (kodea: NT0025).

Kanpainaren helburua da berdintasun-planak egiteko eskakizuna betetzen dela kontrolatzea, bai eta enpresa guztiak behartuta dauden diskriminazio mota oro saihesteko neurriak egiaztatzea ere.

Berdintasun-planak egiteko eta aplikatzeko betebeharra barne hartzen duten hitzarmen kolektiboetan oinarrituta hautatuko dira enpresak, bai eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorrerako neurriak hartzera behartzen duten klausulak dituzten hitzarmen kolektiboetan oinarrituta ere, berdintasun-planak egiteko betebeharrik ez dagoenean.

Derrigorrean berdintasun-planak izan behar dituzten edo dituztenak osatzeko neurriak hartu behar dituzten enpresen kasuan, aurreko urteetan egindako eskakizunak eraginkortasunez betetzen dituztela egiaztatuko da.

Hemen sartzen dira, oro har, emakumeen eta gizonen arteko laneko edozein diskriminazio saihesteko neurriak hartzea, bai eta arlo horretako gaine-

rako apartatuetan sartzen ez diren beste betebehar batzuk ere.

Kanpaina hori egitea bereziki garrantzitsua da 6/209 Errege Lege Dekretuak eta urriaren 13ko 901/2020 Errege Dekretuak sartutako aldaketetan oinarrituta, bereziki kontuan hartuta, 2022ko martxotik aurrera, betebehar hori 50 langile edo gehiagoko enpresei eska dakiekeela; beraz, 2025ean planifikatutako jarduketa kopuru berari eusten zaio.

Urtero 55 ikusketa-jarduketa planifikatzen dira.

Berdintasunaren arloan 2023tik gaur arte egindako ikuskapenak.

2023an egindako ikuskapenak: 92 jarduketa

2024an egindako ikuskapenak: 102 jarduketa

2025ean egindako ikuskapenak (urriaren 31ra arte): 106 jarduketa

Egindako ikuskapenak guztira: 300 jarduketa

Honako arlo hauek ikuskatzen dira:

Emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna:

– Bereizkeria enplegua lortzeko unean

– Bereizkeria lan-harremanetan (diru-sarrerak, soldatak, igoera)

– Sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena

– Berdintasun-neurriak eta -planak

– Familia- eta lan-bizitza bateragarri egiteko eskubideak

– Bereizkeria negoziazio kolektiboan

Zehapenik ezarri al zaio enpresaren bati berariazko araudia (901/2020 Errege Dekretua) ez betetzeagatik?

• 3 espediente/enpresa 2025ean

• 4 espediente/enpresa 2024an

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2026ko martxoaren 16an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

---

# 11-26/PES-00059. Galdera, Parquenasaren kontratuak direla-eta esku-hartu ez izanari buruzko espedientea ez argitaratzeko arrazoiei buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak Parquenasaren kontratuak direla-eta esku-hartu ez izanari buruzko espedientea ez argitaratzeko arrazoiei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko otsailaren 27ko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko martxoaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egindako galdera idatziarekin lotuta (2026ko otsailaren 18ko 202601042 –11-26/PES-00059– irteera-zenbakiarekin erregistratu da), Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluarekin bat etorrita, Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilariak adierazi dio eskatzen den informazioaren argitalpen eguneratua duela Gardentasunaren Atarian, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen 22. artikuluaren 1.A apartatuan, f) letran adierazitakoaren arabera: “Barne fiskalizazio-

ko organoek emandako txostenak, bereziki kexak aurkezten dituztenak, aurrekontuak aldatzeko eta gastu publikoaren kudeaketaren kontrolerako espedienteetan”.

Arrazoi bakarra da 2022ko irailaren 14ko Gobernu Erabakian xedatutakoa betetzea. Erabaki horrek onetsi egiten ditu Nafarroako Gobernuaren Gobernu Irekiaren Atarian kontu-hartzailetzaren funtzioa betez egindako barneko fiskalizazio-txostenak argitaratzeko jarraibideak. Jarraibideen 3. puntuan, “Unitate igorlea eta igorpenaren organo arduraduna” izenekoan, administrazio-espedientearen organo kudeatzaileari ematen zaio erantzukizuna bere departamentuko, erakunde autonomoko edo unitateko informazio publikoaren unitate arduradunari dokumentazioa emateko, gordailura edo Gobernu Irekiaren Atariak gaitutako helbide elektronikora bidaltzeko.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2026ko martxoaren 17an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

## 11-26/PES-00060. Galdera, Nafarroan 1/2024 Legea garatzeari buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak Nafarroan 1/2024 Legea garatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko otsailaren 27ko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Geroa Bai talde parlamentarioak aurkeztutako 11-26-PES-00060 galdera idatziari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

Ekainaren 7ko 1/2024 Legearen azken xedapenetako bederatzigarrenaren arabera, Gobernuak, autonomia-erkidegoei kontsulta egin ondoren, legea ezartzeko egutegia onetsiko du lege hura indarrean jarri eta, gehienez, urtebetera.

Uztailaren 8ko 611/2025 Errege Dekretuak zehazten du ekainaren 7ko 1/2024 Legea ezartzeko egutegia. Ondoren, errege-dekretu horretan xehatzen da Hezkuntza Ministerioak aurreikusten duen estatu mailako oinarrizko araudia onesteko egutegia:

| | 2025 | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | JUN | JUL | AG | SEP | OCT | NOV | DIC |
| Real Decreto por el que se establece el calendario de implantación de la LEA | ■ | | | | | | |
| Real decreto por el que se adapta la composición y funciones del Consejo Superior de Enseñanzas artísticas | | ■ | | | | | |
| Real Decreto para reglamentar el procedimiento de equivalencia de estudios de danza previos a la LOGSE | | | | ■ | | | |

| LEYENDA |
|---|
| Real Decreto |
| Orden |

| | 2026 | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | ENE | FEB | MAR | ABR | MAY | JUN | JUL | AG | SEP | OCT | NOV | DIC |
| Reales decretos por los que se modifican los primeros títulos de enseñanzas artísticas profesionales, en los que constará los estándares de competencias profesionales que correspondan | | | | | | | | | | | | |
| Real Decreto que establece el régimen, organización y funcionamiento del registro Estatal de EEAA | | | | | | | | | | | | |
| Reales decretos de estructura y organización de las enseñanzas de grado y máster, con procedimientos de calidad. | | | | | | | | | | | | |
| Real Decreto por el que se determine los requisitos para la designación de profesorado emérito | | | | | | | | | | | | |
| Orden por la que se establecen las condiciones del plan de estudios del Máster de especialización en investigación y didáctica | | | | | | | | | | | | |

| LEYENDA |
|---|
| Real Decreto |
| Orden |

| | 2027 | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | ENE | FEB | MAR | ABR | MAY | JUN | JUL | AG | SEP | OCT | NOV |
| Real Decreto por el que se regulan los requisitos y procedimiento para la expedición de títulos de grado y máster en EEAASS | | | | | | | | | | | |
| Normativa básica de ordenación de los nuevos cuerpos docentes | | | | | | | | | | | |
| Real Decreto que establece las características del programa de formación en competencias para la función directiva | | | | | | | | | | | |
| Real Decreto que regule las condiciones para la creación o autorización de centros, con requisitos mínimos para su funcionamiento | | | | | | | | | | | |
| Real Decreto por el que se aprueba el Estatuto Básico del Estudiante | | | | | | | | | | | |
| Reales decretos por los que se publica el contenido básico de los planes de estudios de los títulos de grado en EEAASS | | | | | | | | | | | |

Nafarroako graduko ikasketen antolamenduari dagokionez, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak eta goi mailako arte-ikasketak ematen dituzten zentroek era progresiboan egokitzen eta ezartzen ahalko dituzte gradu tituluen ikasketa planak, araudi horretan ezartzen diren prozeduren arabera. Edonola ere, graduko tituluetako ikasketa-plan guztiak antolamendu berrira egokituta egonen dira, araudi hori indarrean jarri eta, gehienez, hamar urteko epean.

Horrenbestez, 1/2024 Legea, ekainaren 7koa, goi-mailako arte-irakaskuntzak arautzen dituena eta arte-irakaskuntza profesionalen antolaketa eta baliokidetasunak finkatzen dituena, gaur egun indarrean dagoen arren, hura garatzen duten errege-dekretuen eta ministro-aginduen argitalpenak ahalbidetuko dio Hezkuntza Departamentuari haien antolamendua eta araudia irakaskuntza horien testuinguru berrira egokitzea.

Iruñean, 2026ko martxoaren 16an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

# 11-26/PES-00061. Galdera, txerri-izurri afrikarra dela-eta hartutako neurriak areagotzeari buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Félix Zapatero Soria jaunak txerri-izurri afrikarra dela-eta hartutako neurriak areagotzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko otsailaren 27ko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Félix Zapatero Soria jaunak 11-26/PES-00061 idatzizko galdera egin du, txerri izurri afrikarra dela-eta neurri gehiago hartzeari buruz. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

1. Hasi da txerri izurri afrikarra prebenitzeko eta horri aurre egiteko foru plana taxutzeko lana? Izan ere, parlamentu honek plana premiaz onets zedin premiatu zuen.

Plana eginda dago jada, eta plan guztiak bezala, egoera epidemiologikora eta beste plan batzuetara egokitzen joango da, hala nola biosegurtasuna kontrolatzeko planera, txerrien osasun-zaintzarako planera, desinfekzio zentroak kontrolatzeko planera eta gaixotasun horrekin zuzenean edo zeharka lotutako beste plan batzuetara.

Otsailaren 19an, Abeltzaintza Zerbitzuaren prestakuntza eman zitzaien Basozainak/Ingurumena zaintzeko taldeko koordinatzaileei. Prestakuntza horrek bi orduko iraupena izan zuen, eta, bertan, hegazti influenzaz eta tuberkulosiaz gain, modu berezian landu zen txerri izurri afrikarra. Honako eduki hau izan zuen prestakuntzak:

a. Gaixotasunari buruzko laburpena

b. Egoera

c. Basa faunak epidemiologian duen rola:

– Espezieak

– Araudia

d. Kontrolatzeko beharra

e. Laginketa:

– Prebentzio neurriak

– Hilotzen kudeaketa

Prestakuntzaz gain, 2026ko urtarrilaren 8an, Abeltzaintza Zerbitzuak “Txerri izurri afrikarraren ondorioz basurde hilak agertuz gero jarduteko protokoloa” eman zion Basozainak/Ingumena zaintzeko taldeari. Protokolo horren helburua da Basozainak/Ingurumena zaintzeko taldeak basurde hilak detektatu ahal izatea, gaixotasun horren analisiak egiteko, birusaren balizko presentzia lehenbailehen hauteman ahal izateko eta birusa desagerrarazteko beharrezkoak diren mekanismoak abian jarri ahal izateko.

2. Mozioa 2026ko urtarrilean onetsi zenetik, biosegurtasuna indartzeko zer neurri zehatz ezarri da Nafarroako txerri ustiategietan?

Ekoizleek biosegurtasun neurriak hobetu dituzte; Bartzelonako fokuen hurbiltasunak kezka handiagoa sortu du.

Nafarroan 710 txerri ustiategi daude, eta horietatik 383 txikiak dira, hau da, jarduera osagarri bat: autokontsumorako animaliak haztea eta gizentzea, normalean urteko sasoi bakar batean. Hala ere, guztien biosegurtasuna azpimarratu behar da, basa faunarekiko interakzioa saihesteko.

| **Urtea** | Multzoa Lehenengoa | Multzoa Bigarrena | Multzoa Hirugarrena | Murriztua | **GUZTIRA** |
|---|---|---|---|---|---|
| IRURTZUNGO ESKUALDEKO BULEGOA | 5 | 4 | 2 | 38 | 49 |
| DONEZTEBEKO ESKUALDEKO BULEGOA | 7 | | | 140 | 147 |
| ELIZONDOKO ESKUALDEKO BULEGOA | 23 | 1 | | 128 | 152 |
| LIZARRAKO ESKUALDEKO BULEGOA | 29 | 30 | 9 | 9 | 77 |
| OTSAGABIAKO ESKUALDEKO BULEGOA | 1 | | | 16 | 17 |
| IRUÑEKO ESKUALDEKO BULEGOA | 3 | 5 | 2 | 19 | 29 |
| ZANGOTZAKO ESKUALDEKO BULEGOA | 2 | 4 | 1 | 16 | 23 |
| TAFALLAKO ESKUALDEKO BULEGOA | 15 | 79 | 31 | 12 | 137 |
| TUTERAKO ESKUALDEKO BULEGOA | 13 | 50 | 11 | 5 | 79 |
| **GUZTIRA** | 98 | 173 | 56 | 383 | 710 |

Animalien Osasunaren Atalak kontrol planarekin jarraitu du. Urte honen hasieran bisitatu beharreko ustiategien hautaketan, gure ustez, akats gehien izan zitzaketenak eta, beraz, arrisku handiena zutenak lehenetsi dira. Horregatik, hasitako espedienteen proportzioa handiagoa da bideratu gabeko jarduketa batean baino. Ez da laginketa adierazgarria; Katalunian fokuak deklaratu ondoren arriskua minimizatzeko zuzendu da. 2026an zortzi berrikuspen bisita egin dira; bitan ez da akatsik detektatu, horietako lautan epe bat eman zaie akats txikiak zuzentzeko eta beste bitan ikuskaritzak bi zehapen espediente proposatzea ekarri du, animaliak sartzea murrizteaz gain.

Emaitza onak dira, kontuan hartuta lana aurreko kanpainetan akatsak detektatu genituen ustiategietan zentratu dela.

90 ustiategi planifikatu dira 2026an biosegurtasun inkestak egiteko. Gogoratu 2015etik lan handia egin dela biosegurtasuna hobetzeko.

| **Urtea** | **Inkesta kopurua** | **Ustiategi intentsiboak** | **Ustiategi murriztuak** | **Ustiategi estentsiboak** |
|---|---|---|---|---|
| 2015 - 2016 | **294** | *281* | 10 | 3 |
| 2019 - 2020 | **195** | *176* | 18 | 1 |
| 2022 - 2023 | **245** | *194* | 47 | 4 |
| 2024 - 2025 | **136** | *105* | 30 | 1 |

Behin baino gehiagotan bisitatu dira ustiategi intentsibo guztiak, bai eta ustiategi txikien ehuneko handi bat ere.

3. Katalunian txerri izurri afrikarraren kasuak ugaritzen ari direnez eta Aragoik 2026ko martxoaren 29ra arte luzatu duenez basurdearen ehiza sasoia, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak badu gisa horretako erabakirik hartzeko asmorik, Nafarroan populazioa areago kontrolatzeko?

Nafarroako Foru Komunitatean, duela urte batzuetatik hona, basurdearen ehiza malgutzen joan da, gaur egun hainbat modalitatetan baimenduta dago, eta urte osoan zehar egin daiteke, modu batera edo bestera.

Alde batetik, 189E/2025 Foru Agindua, ekainaren 26koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, zeinaren bidez onesten baita 2025-2026 denboraldirako ehiza debekualdiei buruzko xedapen orokorra (NAO, 148. zk., – 2025/07/24), eta, bestetik, 207E/2021 Foru Agindua, abuztuaren 3koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, zeinaren bidez onesten baita pertsonen osasunari edo segurtasunari, nekazaritzari, basogintzari, abeltzaintzari edo basa faunari kalte handiak egiten dizkieten ehiza-espezieak kontrolatzeko metodoak arautzen dituen xedapena (NAO, 216. zk., – 2021/09/14/).

4. Basa faunaren zaintza eta koordinazio teknikoa egiteko zer mekanismo baliatzen ari zarete Aragoiko erkidegoarekin batera, hark txerri izurri afrikarraren kontrako aparteko neurriak onetsi zituenetik?

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua txerri izurri afrikarraren jarraipenaren eta bilakaeraren zain dago. Ehiza Komitearen bidez, harremanetan gaude autonomia-erkidego guztiekin eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioarekin. Duela gutxi, PigBrig harrapaketa-sistemak aldi baterako lagatzeko eskabideari erantzun zaio, eta Kataluniako Generalitateko Nekazaritza, Abeltzaintza, Arrantza eta Elikadura Kontseilaritzaren esku jarri da Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuan eskuragarri dagoen PigBrig sarea.

Bestalde, bilerak egin dira, haragi horrekin produktuak egiteko, basurdearen ehizakiak biltzen edo tratatzen dituzten ehiza-enpresa edo -zentro guztiekin. Larrialdiko kontratu bat baimendu zen “Biurrun” ehiza-zentroarekin, eta, beraz, Nafarroan hildako basurdeen bilketa ziurtatu da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2026ko martxoaren 16an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

---

## 11-26/PES-00062. Galdera, 2024ko kirol-urtekariari buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak 2024ko kirol-urtekariari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko otsailaren 27ko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko martxoaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak 11-26/PES-00062 idatzizko galdera egin zuen. Hona hemen Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

2024ko Kirol Urtekaria laster argitaratuko da INDAFen webgunean.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen dena betez.

Iruñean, 2026ko martxoaren 21ean

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

---

# 11-26/PES-00063. Galdera, Nafarroan dauden eta Estatuaren jabetzakoak diren etxebizitzei buruz Zoruaren Enpresa Entitate Publikoak emandako txostenari buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, Nafarroan dauden eta Estatuaren jabetzakoak diren etxebizitzei buruz Zoruaren Enpresa Entitate Publikoak emandako txostenari buruzkoa, 2026ko martxoaren 6ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak idatzizko galdera egin du (11-26/PES-00063). Hona hemen Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

1. Nafarroako zein udalerritan daude zehazki Zoruaren Enpresa Entitate Publikoaren txosteneko 60. orrialdean aipatutako 15 etxebizitzak?

Nafarroako Zoruaren Enpresa Entitate Publikoa-CASA 47ren etxebizitzen zerrenda adierazi da, udalerrien arabera banakatuta, estatu-erakunde horrek emandako datuen arabera.

| UDALERRIA | ETXEBIZITZA KOP. | HELBIDEA |
|---|---|---|
| Aranguren | 2 | LABIANOKO BIDEA |
| Barañain | 1 | KULTURA 10 |
| Berriozar | 1 | SAN AGUSTIN 21 |
| Oltza Zendea | 2 | M1J 1 eta 2 SEKTOREAK / M1B 1 eta 2 SEKTOREAK |
| Zizur | 6 | NUESTRA SEÑORA DEL PERDON |
| Lekunberri | 36 | ITURRIBURU 8 |
| Orkoien | 8 | FEDERICO GARCÍA LORCA 35; KUPUETA 7; PABLO NERUDA 24, 26, 30 eta 32 |
| Tutera | 8 | FRAUCA KALEA 2, 4 eta 6 |

2. Zein da etxebizitza horien egungo egoera juridikoa?

Ez dakigu zein den etxebizitza horien egoera juridikoa. Zoruaren Enpresa Entitate Publikoa-CASA 47k jakinarazi digu SAREBek estatu-erakunde honi helarazpenak egiten dizkiola etxebizitzak alokatzeko daudenean, halakotzat hartuta beren baldintza teknikoak eta juridikoak.

3. Noizko aurreikusten da horiek alokairuan egiaz jarri ahal izatea?

Zoruaren Enpresa Entitate Publikoa-CASA 47k ez du aldi baterako aurreikuspenen jakinarazpen ofizialik egin.

4. Izan al du Nafarroako Gobernuak bilerarik edo komunikaziorik Zoruaren Enpresa Entitate Publikoarekin Nafarroan kokatutako etxebizitzen kudeaketa edo koordinazioa dela eta? Erantzuna baiezkoa bada, zein izan da elkarrizketa horien emaitza?

Zoruaren Enpresa Entitate Publikoa-CASA 47rekin egindako lan-bileretan estatuko lurralde osoari modu berean aplikatzen zaion lankidetza-hitzarmen baten eredu bat planteatu du. Proposamena aztertzen ari da, araudia eta Nafarroaren berezko ezaugarriak kontuan hartuta.

5. Txostenak berariaz adierazten duenez ez dagoela zerrenda itxirik eta perimetroa gutxi gorabeherakoa dela, Nafarroako Gobernuak ba al du Zoruaren Enpresa Entitate Publikoak kudeatzen duen Estatuko parkean Nafarroako etxebizitza gehiago sartzeko aukerari buruzko ziurtasunik?

6. Erantzuna baiezkoa bada, zenbat etxebizitza gehigarri sar litezke eta zein udalerritan?

Nafarroako Gobernuak ez du jakinarazpen ofizialik Nafarroako etxebizitza berriak Zoruaren Enpresa Entitate Publikoa-CASA 47ren etxebizitza-parkean sartzeari buruz.

7. Aurreikusita al dauka Nafarroako Gobernuak formalki eskatzea Zoruaren Enpresa Entitate Publikoari Nafarroan dauden Estatuaren titulartasuneko etxebizitzak lagatzeko, NASUVINSAk kudea ditzan, etxebizitzaren foru-araudiarekin eta Nafarroan indarrean dauden modulu ekonomikoekin bat etorriz, horrela bermatuz Nafarroako parke publikoan integratuko direla?

Zoruaren Enpresa Entitate Publikoa-CASA 47ren proposamena aztertzen ari da, Nafarroako Foru Komunitatearen arau-esparrua kontuan hartuta.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2026ko martxoaren 25ean

Hirugarren lehendakariorde eta Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

---

## 11-26/PES-00064. Galdera, Leitza Udalerriko Nafarroako Etxebizitza Errentamenduko Kontratuen Erregistroko datuei buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mikel Zabaleta Aramendia jaunak Leitza Udalerriko Nafarroako Etxebizitza Errentamenduko Kontratuen Erregistroko datuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko martxoaren 6ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du 11-26/PES-00064 eskariari buruz. Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak horren harira ematen dion informazioa:

– Etxebizitzen zenbat errentamendu-kontratu erregistratu dira Leitzako udalerrian 2024an eta 2025ean (datuak urtez urte xehakatu), Nafarroako Etxebizitza Errentamenduko Kontratuen Erregistroko datuen arabera?

2024an eta 2025ean 11 errentamendu-kontratu erregistratu ziren, 6 2024an eta 5 2025ean.

– Kontratu horietatik, zenbat dagozkio ohiko etxebizitzari eta zenbat sasoiko errentamendu-kontratuei?

Data horietan Leitzan erregistratutako kontratu guztiak ohiko etxebizitzarenak izan dira.

– Zein izan da alokairuaren hileko batez besteko prezioa Leitzan 2024an eta 2025ean?

Zein izan da 2024an eta 2025ean erregistratutako kontratuen metro koadroko batez besteko prezioa?

Zein izan da urte horietan alokatutako etxebizitzen batez besteko azalera?

Koadro honetan ikus daiteke eskatutako informazioa, batetik, kontratua formalizatu zen egunaren arabera eta, bestetik, kontratua erregistratu zen dataren arabera bereizita.

| Erregistro-urtea | Formalizazio-urtea | Kontratuak | Adostutako hasierako errenta | Katastroko azalera | $m^2$-ko prezioa |
|---|---|---|---|---|---|
| 2024 | 2023 | 3 | 546,7 € | 96,3 | 5,7 € |
| | 2024 | 3 | 488,3 € | 83,1 | 5,9 € |
| | Guztizko partziala | 6 | 517,5 € | 89,7 | 5,8 € |
| 2025 | 2024 | 1 | 500,0 € | 94,0 | 5,3 € |
| | 2025 | 4 | 687,5 € | 106,3 | 6,5 € |
| | Guztizko partziala | 5 | 650,0 € | 103,9 | 6,3 € |
| **Guztizko orokorra** | | **11** | **577,70 €** | **96,1** | **6,0 €** |

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2026ko martxoaren 25ean

Hirugarren lehendakariorde eta Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

Lege Gordailua: NA – 363-1995 ISSN: 2254–1950